

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-03-26(e)(a)n, OSOKO BILKURAK erabagi hau hartu dauela:

7. - BERMEOKO UDALAREN 2021EKO ARAUDI PLANA ALDATZEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren 2021eko Araudi Plana aldatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2021. urtean zehar aldatu edo onartzea aurreikusten dauzan Ordenantzen Araudi Plana prestatu eban Herri Administrazioen Prozedura Orokorra arautzen dauan 39/2015 Legearen 132. artikulugaz bat etortzeko, 2021eko urtarrilaren 29ko O soko Bilkurean onartu zana.

Bigarrena: Bermeoko Udalaren 2021eko Araudi Planean, onartu gura diran Bermeoko Auzo Alkateen Ordenantzaren eta Harrera Etxea Ostatu Zerbitzua Ordenantzaren aurreikuspena ez zala jaso ikusi da.

Argudioak

Lehenengoa: 40/2015 Legearen 3. artikuluan arautzen da Herri Administrazioek euren jardunean bete behar dabezan printzipio honeek: gardentasuna, eta helburuen arabeko planifikazioa eta zuzendaritza.

Bigarrena: 39/2015 Legearen 132. artikularen 1. atalaren arabera, hurrengo urtean onartu gura diran araudi eta ordenantzak jasotzen dauzan Araudi Plana onartu beharra dago.

Hirugarrena: 39/2015 Legearen 132. artikularen 2. atalaren arabera, onartutako Araudi Plana Gardentasun atalean argitaratuko da.

Laugarrena: Onartu gura diran Bermeoko Auzo Alkateen Ordenantza eta Harrera Etxea Ostatu Zerbitzua Ordenantza ez ziranez jaso onartuta dagoen Bermeoko Udalaren 2021eko Araudi Planean, Araudi Plana aldatzea beharrezkoa da.

Bosgarrena: Plangintza onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legearen 22.2.d) artikularen arabera Ordenantzak onartzea O soko Bilkuraren ahalmenekoa danez, O soko Bilkureari jagoko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Erabakia

Udal Osoko Bilkurak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren 2021eko Araudi Plana aldaltzea onartzea Harrera Etxea O status Zerbitzua Ordenantza eta Bermeoko Auzo Alkateen Ordenantza jasotzeko, eta eranskinean agertzen dan moduan geratzea.

BIGARRENA: Araudi Plana Bermeoko udalaren web guneko gardentasun atarian argitaratzea.

HIRUGARRENA: Udal sail guztieri erabagia jakinarazotea.

2021. URTEKO ARAUDI PLANA

Erakunde publikoen jarduna arrazionalizatzeko, baliabide publikoak efizientzia handiagoaz erabiltzeko eta produktibitate handitzeko bultzatu beharreko eginkizunen artean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea onartzen eban 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea onartu zan eta, Lege honek, administrazio publikoen efizientzia, gardentasuna eta bizkortasuna bultzatu gura dauz.

Arautzen dauzan atalen artean, Administrazio Publikoek daukeen Erregelamenduak onartzeko ahalmena aurreikusten da eta, erregulazio onaren printzipioagaz bat, ahalmen horretan, herritarrei entzunaldia eta parte hartzeko aukera emon jakela, eta era egokian emongo jakela bermatu asmoz, eta arauak egiteko prozeduran daukeen parte hartzea handiagotzeko helburuagaz, erregulazio onaren printzipio legez, gardentasuna aurreikusten da eta, gardentasunaren barnean, arauen elaborazioan herritarren parte hartzea aktiboa.

Hori lortzeko, 39/2015 Legearen 132. Artikuluan, Arau-Plangintza xedatzen da, honakoa adierazoz: "1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamenduekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian".

Bestalde, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legea onartu zan, zeinetan administrazioaren jarduna zuzendu behar dabezan kriterio barri legez, gardentasun printzipioa eta helburuen araberako planifikazioaren eta zuzendaritzaren printzipioa jasotzen dira.

Zentzu horretan, honakoa dino 40/2015 Legearen 3. artikulua: "1. Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006598100T0M7D2P1H0L4



efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

(..) c) Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea.

(..) g) Helburuen araberako plangintza eta zuzendaritza, eta politika publikoen kudeaketaren kontrola nahiz politika horien emaitzen ebaluazioa”.

Beraz, Lege agindu horreek bete asmoz, eta Udalaren arautze ahalmenaren barnean, planifikatze betebeharra bete daiten alde batetik, eta herritarrek ahalik eta parte hartze handiena bermatu gurean bestetik, Bermeoko Udalaren 2021. urterako Araudi Plana onartu eta jakitera emotea da agiri honen helburua.

1.- 2021. urterako Araudi Plana. Erregelatze-ahalmenaren aurreikuspena.

Araudi Plan honetan, 2021. urtean zehar, Bermeoko Udalak onartuta daukazan Erregelamendu eta Ordenantzetatik aldatu edo moldatu gura diranak, eta onartu gura diran Erregelamendu eta Ordenantza barriak aurreikusten dira.

Eta aurreikuspen bat dan heinean, ez da loteslea izango. Hau da, gerta leike Araudi Plan honetan jasotako asmoak ez betetzea 2021. urtean, eta gerta leike be, aurretik ikusi edo pentsatu ez izan arren, sortutako beharizanengaitik, beste arau batzuk aldatu, moldatu edo onartu behar izatea.


Halan da be, azken kasu honetan, eta 40/2015 Legeak bermatu gura dauzan gardentasun eta parte hartzea, eta planifikazino egokia bermatzeko, beharizana sortu bezain laster, Araudi Plan hau iragartzen dan atalean bertan, horren barri emongo da, egokia dan iragarkiaren bidez.

2.- Gardentasuna:

Lege agindua era eraginkorrean betetzeko, Araudi Plan hau, Bermeoko Udalaren web guneko Gardentasun-atarian iragarriko da eta, aurreko atalean adierazo lege, leku berean argitaratuko dira Plan hau onartu eta gero sortu leikezan beharizan eta ekimen barriak.

3.- Parte hartzea:

Erregelamendu eta Ordenantzak proposatzeko herritarrek daukeezan eskubideez gain, eta Arau zehatz bat behin-betiko aldatu, moldatu edo onartu orduko lege aginduz bete beharreko entzunaldian alegazinoak aurkezteko aukeraz gain, Araudi Plan hau onartu eta iragartzen dan unetik aurrera, Araudi Planean aurreikusitako



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006598100T0M7D2P1H0L4



arauen ganeko proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. aurkeztu ahal izango dabez interesdunek, arau zehatzen erredakzino barria egiterakoan aztertuak izango diranak.

Aurreko paragrafoan aitatutako parte hartze aukera, araudi proiektu edo erredakzinoa idatzi baino lehenago egin beharreko alde aurretiko kontsulta publikoa zabaldu arte erabili ahal izango da.

Aldez aurretiko kontsulta publikorik egin behar ez dan kasuetan, araudi proiektu edo erredakzinoa egin arte egongo da parte hartze aukera hau erabiltzeko ahalmena.

Aurkeztutako proposamen, iradokizun, eskariak, etab. erredakzino barrian jasoko ez balira, horren zergaiti zehatza emongo litzakie proposatzaileeri, baina beti be, kontutan eukita, parte hartzea bermatzea behar-beharrezkoa bada be, parte hartze horretako emaitza ez dala loteslea eta ezin dauzala interes orokorra eta erakundearen arautze ahalmena mugatu.

Behin alde aurretiko kontsulta publikoaren epea zabaldua, Bermeoko udal-araudiak eta ordenantzak sortzeko prozeduran alde aurretiko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazino publikoari buruzko gidalerroen arabera aurkeztuko dira proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. Eta hori guztia, onarpen prozedurearen barnean aurreikusten dan entzunaldi epean aurkeztu leikezanen kalte barik.

4.- 2021. urtean aldatu edo moldatu gura diran Arauen zerrenda:

Bermeoko Udalak onartuta daukazan Arauen artetik, honeek aldatu gura dira urte honetan zehar:

1. Bermeoko Udal Hilerriaren barne antolakuntza Araudia:

Xedea: Udal hilerriaren erabilera eta kudeaketa arautzen dau.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: Aldaketa orokorra.

Arrazoa: Zaharkituta egoteagaitik.

2. Bermeoko Udal Azokako Ordenantza:

Xedea: Udal azokaren erabilera eta kudeaketa arautzen dau.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Baimendu egun berezi batzuetan, adibidez, San Juan egunean edo Azaroaren 1ean, loreen salmentarako zabaltzea. Bestalde, Postuak emakidan esleitu ahal izateko beharrezko argindar hornidura daukeela bermatzeko egokia dan xedapena jaso gura da.

Arrazoa: Eskabideak egoten dira egun berezietan zabaltzeko eta ez dago aurreikusita posible dan edo ez. Betalde, postuen emakida errazteko asmoz,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006598100T0M7D2P1H0L4



argindarraren kablea udalak ipiniteko eskariak egin dira.

3. Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen dauan Ordenantza:

Xedea: Udalerrian egin leiken kalez kaleko salmenta arautzen dau.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Udalaren eskumeneko edo udalak antolatzen dauzan azoka eta kale salmentak bestelako kale salmentetatik bereiztu.

Arrazoa: Araudia udalerrian egiten dan kalez kaleko salmenta guztiari aplikatzen jako baina jasotzen diran arauak asteroko azokatxoari zuzendutakoak dira orokorrean, eta egokitu egin behar da.

4. Bidaiariak Automobil Arinetan Garraiatzeko Zerbitzuari buruzko Udal Araudia:

Xedea: Udalerrian bidaiariak automobil arinetan (taxiak) garraiatzeko zerbitzua arautzen dau.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Auto-taxien jardura arautzen duen ordenantza zuzentzea eta eguneratzea.

Arrazoa: Akatsen bat zuzendu beharra dago, eta azken urteotan agertu diran bestelako zerbitzuak/erabilerak arautu.

5. Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza:

Xedea: Bermeon leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratzea.

Arrazoa: Ordenantza eguneratu behar da 44/2020 DEKRETUari, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretua aldatzen duenari egokituz.

6. Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko udal ordenantza:

Xedea: Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, O bra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Espazio publikoaren kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urteetan espazio publikoan ipinitako terraza kopuarua nabari ugaritu da. Terraza horreek modu ordenatuan ipintea bermatzeko ordenantza berrikustea beharrezkoa da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



5.- 2021. urtean onartu gura diran Arau barrien zerrenda:

Bermeoko Udalak Arau barri honeek izapidetu eta onartu gura dauz urte honetan zehar:

1. Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxearen, Nestor Basterretxea aretoaren eta udalaren titularidadepako Kafe Antzokiko instalazioen funtzionamendua arautzeko Erregelamendua:

Xedea: Aitatutako lokalen erabilera eta kudeaketa arautzeko.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako erregelamendurik eta arautu beharra dago.

2. Bermeoko Jai Batzordearen Araudia:

Xedea: Jai Batzordearen Araudia onartu gura da bere funtzionamendua ordenatu ahal izateko.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako Araudirik eta funtzionamendua era ordenatuan bideratzeko beharrezkoa dalako

3. Bermeoko udalerriko hondartza eta itsas-kalen erabilerari buruzko ordenantza:

Xedea: Aritzatxu hondartzaren eta herriko kaleen erabilera arautzeko.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: SIG-eren euskarri bat izango delako eta dauzen arazoak ekiditeko (txakurrak, akanpadak, motorren erabilera..).

4. Udal Jabariaren erabilerarako Ordenantza Orokorra

Xedea: Udal jabaria antolatu eta erabiltzeko.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da.

5. Bermeoko Udal antolaketa eta funtzionamendurako Araudia

Xedea: Udala antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Egin gura dan jarduna: O nartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

6. Bermeoko Udal Artxiboko Araudia

Xedea: Udal Artxiboa antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: O nartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

7. Apartamentu turistikoen inguruko Ordenantza:

Xedea: Apartamentu turistikoei buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, O bra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Apartamentu turistikoen kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urtean Bermeon dagozan apartamentu turistikoak asko ugaritu dira, batez ere alde zaharrean. Jarduera barri hau arautzea beharrezkoa da.

8. Bermeoko udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendu mugatua arautzeko Ordenantza:

Xedea: Bermeoko udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendu mugatuetako arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Udaltzaingoa

Egin gura dan jarduna: Herriko zenbait tokitan, aparkalekuen eskaintza eta eskaeraren arteko oreka handitu eta udalerriko saltokietan kontsumoa sustatu.

Arrazoa: Bermeon dagoan aparkaleku arazoa, trafikoa antolatu eta Udalerriko saltokietan kontsumoa sustatzeko aparkamendu mugatua arautzea beharrezkoa da.

9. Bermeoko Auzo Alkateen Ordenantza

Xedea: Auzo alkateen erregimena eta hautaketa prozesua arautzea.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: O nartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006598100T0M7D2P1H0L4



10. Harrera Etxea O statu Zerbituaren Ordenantza

Xedea: Harrera Etxea O statu Zerbitzua arautzea.

Sail arduraduna: Gizarte Ongizaterako Saila.

Egin gura dan jarduna: O nartu.

Arrazoia: Ez dago eta beharrezkoa da.

6.- 2021. Urterako Ordenantza fiskalak:

Ordenantza fiskalak urtero errebisatzen dira eta, ondorioz, 2021. urtean be errebisatzeko aurreikuspena dago.

7.- Bestelako ekimenak:

Aurretik adierazotako ekimenetatik kanpo, udal talde politikoek eta negoziazio mahaiak daukeen proposatze ahalmenetatik sortu leikezanak be bideratuko dira 2021. urtean, horrelakorik balego.

Eta bardin egon leikezan prozedura judicial edo epaien ondorioz, araudi zehatz bat aldatu, moldatu edo onartzeko betebeharra sortuko balitz.

Kasu honeetan, eta arintasuna bermatze aldera, Araudi Plan honen aldaketak egiteko ahalmena Alkatetzarengan delegatzen da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006598100T0M7D2P1H0L4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 31/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/04/2021
22:46:41

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0257
Data: 16/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006598100T0M7D2P1H0L4

